

# I ERANSKINA: EGIAPTAPENA BERRITZEKO UNIBERTSITATEAK AUTOEBALUAZIOAREN TXOSTENA EGITEKO TXANTILLOIA.

## I.- SARRERA

Txantilo honen helburua Unibertsitateei laguntza ematea da autoebaluazio txostena egiterako orduan, tituluaren gainean egindako balioespenaren emaitza gisa. Irizpideen eta gidalerroen betetzearen gaineko balorazioa jasotzeko oinarri baliagarri bat da. Gidalerro bakoitzean azterketa zein alderdietan oinarritu behar den, balorazioak sostengatzen duten proposatutako ebidentziei eta beharrezkoak diren adierazleei buruzko informazioa ematen da. (1.go Taula: Tituluaren adierazle eta datuak (adierazleen eta jarraipen datuen bilduma) eta 2.Taula. (Azken ikasturtearen ikasketa plana osatzen duten irakasgaien emaitzak) "Ez dagokio" aukera gehituko da Egiaptapena berritzeko prozesura aurkeztutako tituluaren ezaugarriak direla eta ebaluatu ezin diren galderetan.

Autotxostenak gehienez 30.orrialdeko luzera izango du, atxikitako eranskinez gain.

Autoebaluazio txostenarekin batera aurkezten diren ebidentziak dokumentuaren bukaeran zerrendatuta egon beharko dira eta dagokion artxibategi elektronikoari lotuak, edo izatekotan ebaluatzaileei kontsulta egiteko erraz gerta dakioken moduan aurkeztuko dira.

Unibertsitateek *Unibertsitate Prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema* (AUDIT) ziurtagiria baldin badute ziurtapen txostenaren edukiera kontuan izango da tituluaren Egiaptapena Berritzeko prozesuan, unibertsitate zentroak bisitatzeko dituzten adituek jarraian agertzen diren Egiaptapena Berritzeko gidalerroak berriz ere balioetsi ez ditzaten ahalbidetuz.

- 1. Irizpidea: Antolakuntza eta garapena.
  - 1.2. Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa planean duen hedadura) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren edo profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.
  - 1.5. Araudi akademiko ezberdinen ezarpena (iraunkortasuna, onespina, etab ... ) era egokian burutzen da eta irakaskuntza etekinen adierazleen balioak hobetzea ahalbidetzen du.
- 2. Irizpidea: Informazioa eta gardentasuna.
- 3. Irizpidea: Kalitatea Bermatzeko Sistema.
- 4. Irizpidea: Langile akademikoak.
  - 4.3. Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan
- 5. Irizpidea: Laguntza-langileak, baliabide materialak eta zerbitzuak.

- 5.4. Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Unibertsitateek DOCENTIA ezarpen ziurtagiria badute, ziurtapen txostenaren edukiera tituluaren egiaztapena berritzeko prozesuan kontuan izango da. DOCENTIA egiaztatze prozesuan zentroan ezarritako Irakaskuntza Kalitatearen Ebaluazio Sistemaren alderdi ezberdinen balorazioaren gaineko burutapena egiten da. Burutapen hau ebaluazio txostenean islatzen da eta bere edukiera zentroaren tituluaren Egiaztapena Berritzeko prozesuan aintzat hartuko da. Horrela, adituen panela osatzen duten pertsonak ez dituzte ebaluatuko jarraian jasotzen diren Egiaztapena Berritzeko programaren gidalerroak:

3.3. Inplementatutako KBS-k ebaluazioa errazten eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea hobetzen dituzten prozedurak ditu

4.3. Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

Baina, informazio iturri ezberdinetatik, Unibasq-ek intzidentziak antzemango balitu zentroan ematen diren tituluetan, egiaztapen eremuan jasotzen diren eta eragina izan duten irizpideak ebaluatuko ditu, nahiz eta zentroak AUDIT ziurtagiria edo Unibertsitateak DOCENTIA ziurtagiria izan.

## DATU OROKORRAK

<b>TITULUAREN IZENA</b>	
<b>AIPAMENAK/ESPEZIALITATEAK</b>	
<b>KREDITU KOPURUA</b>	
<b>UNIBERTSITATEA(K)</b>	
<b>ZENTRO ARDURADUNA</b>	
<b>TITULUA EMATEN DEN ZENTROA:</b>	
<b>MEC ID KODEA:</b>	
<b>ARAUTUTAKO LANBIDEA:</b>	
<b>TITULUA EMATEN DEN MODALITATEA</b>	presentziala, erdi-presentziala eta/edo urrunekoa
<b>EZARPEN KURTSOA</b>	

- Ebaluazio auto-txosten honen lanketara eta onarpenara zuzendu duen prozesua. Bere idazketan parte hartu duten interes taldeak eta erabilitako prozedura zehaztuz.
- Egiaztapen-memorian, eta ondoren onartu diren aldaketetan egongo balira, ezarritako proiektuaren betetzearen balorazioa.
- Egiaztapen-memorian, edo, gainontzeko aldaketetan bildutakoa bete ez izanaren arrazoiak.
- Titulua abian jarri eta garatu den bitartean aurkitutako zailtasun nagusien balorazioa
- Aurreko kasuetan hartutako neurri zuzentzaileak eta berauen eraginkortasuna.
- Tituluaren hobekuntza jardueren aurreikuspena.

## IRIZPIDEEN ETA GIDALERROEN BETETZEA

### 1 ALDERDIA.- TITULUAREN KUDEAKETA

#### 1 IRIZPIDEA. ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA

**Estandarra: Prestakuntza programa eguneratua dago eta onartutako Egiaztapen-memorian edota gerora memorian egindako aldaketetan ezarritako baldintzekin bat ezarri da.**

#### 1.1 Gidalerroa.

Ikasketa planaren ezarpena eta programaren antolamendua tituluaren egiaztapen memorian edota geroago memorian egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako gaitasunen eta helburuen profilarekin koherentek dira.



#### **Gidalerro honen konplimendurako baloratu beharreko alderdiak:**

Jarraian agertzen diren alderdiak tituluaren emateko aukeran dagoen modalitate bakoitzarendako kontuan hartuko da (presentziala, erdi-presentziala eta/edo urrunekoa) baita ikasleak aldi berean titulu bat baino gehiago ikasten duenean ere:

- Ikasketa planaren ezarpena egiaztatutako memorian ezarritakoarekin bat dator. Irakasgai ezberdinetan erabilitako prestakuntza jarduerak aurreikusitako ikaskuntza emaitzen lorpena errazten duite ikasleriaren aldetik.
- Taldearen tamaina egokia da irakasgaietan garatutako prestakuntza jardueretik eta aurreikusitako ikaskuntza emaitzen lorpena errazten du.
- Ikasketa planaren irakasgaien jarraitutasuna egokia da eta tituluarentzako aurreikusitako ikaskuntza emaitzen lorpena ahalbidetzen du.

#### **Azterketaren oinarri den informazioa**

- Egiaztapen memoria eta hala badagokio, memoria horri egindako aldaketak
- Egiaztapenerako, baimentzeko, aldaketarako eta jarraipenerako ebaluazio txostenak (kontuan izandako denboraldia-titulua)
- Irakasgaien edo gaien edo horien baliokideen inguruko informazioa jasotzen duen irakaskuntza-gida edo baliokide den dokumentua.
- Tituluaren orri-instituzionala.
- Adituek aukeratutako irakasgaietan azterketak edo beste ebaluazio probak.
- Adituek hautatutako Gradu amaierako lana edo Master amaierako lanak
- Irakasgaiaren araberako talde-tamaina
- Egutegia.
- Galdetutako kolektiboen balioespena
- Prestakuntza-programaren antolaketa ikasleek ezarritako denboran programa hori gainditzeko egokituta ote dagoen (kontuan hartutako aldia-titulua) aztertzeko prozedurak
- 1go Taula. Tituluaren adierazle eta datuak (jarraipenaren datuen eta adierazleen bilduma)
- 2. Taula. Azken ikasturtean tituluaren ikasketa plana osatzen duten irakasgaien emaitzak.

#### **BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

**BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA-**

Lortzen da       Lortzen da zati batean       Ez da lortzen       Ez dagokio

**GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK**

**1.2 Gidalerroa**

Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa planean duen hedadura) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren edo profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.



**Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:**

- Tituluarekin lotura duten agenteekin kontsultatzeko prozedurak eta mekanismoak egresatuen benetako egreso-profilaren egokitasunari buruzko informazioa lortzeko
- Egreso-profila zehaztu eta eguneratzerakoan ikasleek lortutako tituluaren ikaskuntza-emaitzak eta tituluaren inplikaturako agenteen iritzia kontuan hartu dira.

**Azterketaren oinarri den informazioa:**

- Inkestatutako kolektiboen balioespena.
- Tituluko ikasleen benetako egreso-profilaren garrantzia eta eguneratzea balioesten dituzten barruko eta kanpoko kontsulta-prozeduren ondorioak jasotzen dituzten txosten edo dokumentuak.

**BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

**BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:**

Lortzen da       Ez da lortzen       Ez dagokio

**GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**

### 1.3. Gidalerroa

Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak (irakasgai ezberdinen artean artikulazio horizontal eta bertikala) biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan-karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaizak lortzea ziurtatuz



#### Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:

Kontuan hartuko da gai/ikasgai bakoitzean eta ikasturte akademikoa eta ikasketa-plana osatzen duten gai eta irakasgai desberdinen artean prestakuntza-ekintzak, edukiak eta ebaluazio-sistemak modu egokian sekuentziatzen diren jakiteko tituluaren arduradunek egindako azterketa, hain zuzen ere, hutsuneak eta bikoizketak saihesteko eta ikasleak gaitasunak eskuratzea lortzeko lan-karga egokia ezarri

Besteak beste honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Ikasketa-planean koordinazio bertikala eta horizontala izatea.
- Zati teorikoa eta jarduera praktikoak edo laborategiko jarduerak biltzen dituzten prestakuntza-jarduerak dituzten gaien kasuan, bi prestakuntza-jarduera horien arteko koordinazio-mekanismoei garrantzi berezia emango zaie.
- Titulua unibertsitate bereko zentro bat baino gehiagotan gauzatzen bada, zentro horien arteko koordinazioa balioetsiko da.
- Unibertsitateen arteko titulua bada, unibertsitate desberdinen arteko koordinazioa balioetsiko da.
- Titulu batek kanpo-praktikak edo praktika klinikoak biltzen baditu, unibertsitatearen eta praktiketako tutoreen arteko koordinazioa balioetsiko da (ikus 5.5 jarraibidea).
- Titulua modalitate desberdinetan ematen bada, modalitate desberdinen (presentziala, urrunekoa edo erdi-presentziala) arteko irakaskuntza-koordinazioa balioetsiko da, hain zuzen ere, ikasle guztiek gaitasun berak lor ditzaten ikasteko aukeratutako modalitatea edozein izanik ere.
- Aldi berean titulu bat baino gehiago ikasten dituzten ikasleen kasuan, inplikaturako ikasketa-planen arteko koordinazioan jarriko da arreta.
- Irakasgai bakoitzean ikasleak duen lan-karga egokia da eta irakasgai bakoitzerako definitutako ikaskuntza-emaizak lortzea ahalbidetzen dio.

Azterketaren oinarri den informazioa:

- Gaien, irakasgaien edo baliokideen arteko koordinazioaren mekanismoak, akordioak eta ondorioak (alderdi globalak, teorikoak eta praktikoak) jasotzen dituzten dokumentuak edo txostenak (kontuan hartutako aldia-titulua).
- Inkestatutako kolektiboen balioespena.
- Denbora osoko ikasleen ikasketen batez besteko iraupena eta denbora partzialeko ikasleen ikasketen batez besteko iraupena (kontuan hartutako aldia-titulua)..

#### BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:

#### BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

#### GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:

#### 1.4 Gidalerroa.

Ezarrizako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarbide-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta berauek aplikatzean egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.



#### Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

- Kontuan hartuko da tituluan matrikulatutako ikasle kopuruak ez gainditzea egiaztapen-memorian eta/edo aldeko txostena jaso duten memoriaren ondorengo aldaketetan onartutako ikasle kopurua.
- Sarbide-profila eta onarpen-baldintzak publikoak dira eta indarrean dagoen araudia egokituta daude.
- Onarpen-prozesua gauzatu duen organoaren inguruko informazioa, merezimenduak balioesteko irizpideak eta programan ezarrizako hautaketa-sisteman erabilitako berariazko onarpen-frogak publikoak eta prestakuntza-programan definitutako sarrera-profilarekiko koherenteak dira.
- Prestakuntza-osagarriak biltzen dituzten masterreko eta doktoregoko tituluen kasuan, titulu horietan ikasten duten ikasleek premiazkoak diren gaitasunak eta jakintzak parekatzeko eta eskuratzeko egitekoa betetzen ote duten aztertuko da.
- Egokitzapen-ikastaro bat ematen duten gradu-tituluen kasuan, kontuan hartuko da tituluan matrikulatutako ikasle kopurua, egiaztapen-memorian eta/edo aldeko txostena jaso duten memoriaren ondorengo aldaketetan onartutako ikasle kopuruarekin alderatuz.

#### Azterketaren oinarri den informazioa:

- Titulazioaren orri instituzionala.
- Tituluaren arabera aplikatu daitezkeen onarpen-irizpideak eta aplikazio horren emaitzak.
- Ikasturte desberdinetan matrikulatutako ikasleak.
- Inkestatutako kolektiboaren balioespena.
- 1go Taula. Tituluaren adierazle eta datuak (jarraipen adierazleen eta datuen bilduma)

#### BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:

#### BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:

Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

#### GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:

### 1.5 Gidalerroa.

Araudi akademiko ezberdinen ezarpena (iraunkortasuna, onespina, etab ... ) era egokian burutzen da eta irakaskuntza etekinen adierazleen balioak hobetzea ahalbidetzen du.



**Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:**

- Kredituak onesteko ardura duen batzordearen funtzionamenduari garrantzi berezia emango zaio.
- Aplikatutako kasuak egiaztapen-memorian eta/edo aldeko txostena jaso duten memorian geroago egindako aldaketetan ezarritakoekin bat datozela egiaztatuko da.
- Aldez aurreko prestakuntza/esperientziagatiko errekonozimenduen eta tituluan ikasleak eskuratu beharreko gaitasunen arteko egokitzapena balioetsiko da.

**Azterketaren oinarri den informazioa:**

- Zentroak/unibertsitateak kredituak transferitzeko eta onesteko erabilitako prozedura eta araudia.
- Kredituak onetsi zaizkien ikasleen zerrenda.
- Zentroaren edo unibertsitatearen iraute-araudia.

**BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

**BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:**

Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

**GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**



## 1go ALDERDIA.- TITULUAREN KUDEAKETA

### 2. IRIZPIDEA. INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

**Estandarra:** Erakundeak kalitatea bermatzen duten prozesuen eta programen ezaugarriak interes taldeei modu egokian komunikatzeko mekanismoak ditu.

#### 2.1. Gidalerroa

2.1. Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazio egokia eta eguneratua argitaratzen dute, bai jarraipen-bai egiaztapen- prozesuei buruzkoa ere.

#### Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:

Ikasketa-planari buruzko informazio garrantzitsua, bereziki tituluaren ebaluaketarekin, garapenarekin eta emaitzekin zerikusia duena, eskuragarri egotea balioetsiko da, tituluaren arduradunek gardentasunaren eta kontuak ematearen arloan duten egitekoan lagunduko duen elementu gisa.

#### **Besteak beste, honako alderdi hauek balioetsiko dira:**

- Tituluaren egiaztapen-memoria argitaratzea baita memoriari dagozkion eguneratzeak ere (aldeko txostena jasotakoak).
- Egiaztapenerako azken ebaluazio-txostena eta ikasketa-planaren aldaketa-txostenak.
- Barneko eta kanpoko jarraipen-txostenak.
- Unibertsitate Kontseiluaren egiaztapen-ebazpena.
- Ikasketa-planaren Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluaren Erregistrorako esteka.
- Tituluaren Kalitatearen Bermerako Sistemarako (tituluaren arduradunak, prozedurak eta abian jarritako hobekuntza-ekintzak biltzen ditu) esteka.
- Tituluaren emaitza garrantzitsuenei buruzko informazioa (errendimenduaren adierazleak, hainbat kolektiboren gogobetetzea, laneratzea).

#### **Azterketaren oinarri den informazioa:**

- Tituluaren web-orria.
- Tituluaren jarraipen-txostenak.
- Inkestatutako kolektiboen balioespena.

#### **BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

#### **BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:**

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

#### **GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**

## 2.2. Gidalerroa

Tituluan interesa izan dezaketen ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteeek erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.

### Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

Ikasketa-planean interesatuta dauden kolektiboentzat (etorkizuneko ikasleak, enplegatzaileak, hezkuntza-administrazioak eta abar) erabilgarri dagoen informazioaren irisgarritasuna eta egokitasuna balioetsiko da; besteak beste honako informazio hau:

- Titulurako sarbidea eta gomendatutako sarrera-profila.
- Ikasketa-planaren egitura moduluak, gaiak eta irakasgaiak bilduz, kreditu-banaketa, titulua emateko modalitateak, ezarpen-egutegia eta, hala badagokio, gradu-aipamenak edo master-espezialitateak, haien prestakuntza-ibilbideak deskribatuz.
- Egresatuaren egreso-profila, lanbidea garatu ahal izateko eremuak eta tituluak eskaintzen dituen sarbide akademikoak.
- Ikasleak eskuratu beharreko gaitasunak.
- Tituluak araututako lanbide baterako sarbidea ematen badu edo lanbide arautu batera daramaten ikasketetarako sarbidea ematen badu, alderdi hori ikasketak arautzen dituen agindurako esteka baten bidez argi zehaztu behar da, eta alde zuzenetik, "lanbide arautua" gauzatzera daraman titulua izateak zer esan nahi duen azaldu behar da.
- Tituluari gaitasun profesionalik ez badagokio, argitaratutako informazioak ez du alderdi horri buruzko nahasmenik eragin behar.
- Tituluak gradura egokitzeko ikastaro bat biltzen badu, argi deskribatu behar da, ikastaroari dagozkion alderdi guztiak jasoz. Ikastaroa egiaztapen-memorian edo memoria aldatuan ezarritakoari egokitu behar zaio.
- Hala badagokio, onarpen-frogen ezaugarriak (irizpideak eta arduradunak).
- Hala badagokio, prestakuntza-osagarriak eta haiek ikasi behar dituzten kolektiboak buruzko informazioa.
- Desgaitasunen baten ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, ikasle horiei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzuen inguruko informazioa balioetsiko da, baita curriculum-egokitzapenak izatea ere.
- Hizkuntza ez-ofizialetan erabilgarri dagoen informazioa.
- Tituluko ikasleei aplikatu dakizkieken unibertsitate-araudiak (irautea, kredituen transferentzia eta onespina, tesia aurkezteko eta irakurtzeko araudia eta abar).
- Titulua urruneko modalitatean ematen bada baina prestakuntza-jarduera edo praktika presentzialak baldin baditu, matrikula egin aurretik adierazi behar da prestakuntza-ekintza horiek garatzeko izango duten kokapen fisikoa.

#### Azterketaren oinarri den informazioa:

- Tituluaren web-orria.
- Tituluaren jarraipen-txostena.
- Inkestatutako kolektiboen balioespina.

#### BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:


#### BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

**GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**

**2.3. Gidalerroa**

Tituluan matrikulatutako ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion une.

** Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:**

Ikasleak matrikulatu ondoren beren ikaskuntzarako garrantzitsua den ondoko informazioarekiko duten erabilgarritasuna, irisgarritasuna eta egokitzapena balioetsiko da:

- Ikasleek irakasgaien ordutegiei, gelei eta azterketa-egutegiari buruzko informazioa eskura izan behar dute baita ikasketa-planaren banaketaren jarraipen on bat egiteko behar den informazioa ere.
- Tituluaren hezkuntza-gidek ikaslearentzat erabilgarri egon behar dute irakasgai guztietan (kanpo-praktikak eta gradu-amaierako edo master-amaierako lanak barne) matrikulatu aurretik.
- Hezkuntza-giden edukia: irakasgai bakoitzaren deskribapena (gaitasunak, bibliografia, gai-zerrenda eta abar), hezkuntza-jarduerak eta ebaluazio-sistemak. Ikasleak material espezifikoak (programa informatikoak, esaterako) edo aldez aurreko jakintzak erabiltzea eskatzen badu irakasgaiak, material horien behar bezalako deskribapena egin beharko da.

**Azterketaren oinarri den informazioa:**

- Tituluaren web-orria edo intranet.
- Tituluaren jarraipen-txostena.
- Irakaskuntza gidak.
- Inkestatutako kolektiboen balioespena.

**BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

**BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:**

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

**GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**

## 1go ALDERDIA.- TITULUAREN KUDEAKETA

### 3. IRIZPIDEA. KALITATEAREN BERMEKO SISTEMA

#### Estandarra:

Erakundeak modu formalean ezarritako Kalitatearen Bermeko Sistema bat du zeinak tituluaren etengabeko hobekuntza eta kalitatea ziurtatzen duen, modu eraginkor batean.

#### 3.1. Gidalerroa

KBS-k, inplementatua eta aldizka berrikusia, informazioaren etengabeko analisia eta jasoera eta tituluen kudeaketa eraginkor batentzako emaitza garrantzitsuenak bermatzen ditu, batez ere ikasketa emaitzak eta interes taldeen asetasuna.



#### Jarraibide hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak

KBS inplementatzea, eguneratzea eta aldizka berrikustea balioetsiko da, eta bereziki honako hauek hartuko dira kontuan:

- helburuak lortzea ahalbidetzeko eta ematen den prestakuntzaren kalitatea etengabe hobetzeko eta bermatzeko duen eraginkortasuna.
- tituluen baldintzak eta interes-taldeen eskakizunak betetzeko gaitasuna.
- informazioa etengabe jasotzea bermatzen dioten prozedurak, emaitzen azterketa (ikaskuntzari, laneratzeari eta interes-taldeen gogobetetzeari dagozkienak), erabakiak hartzeko duen baliagarritasuna, tituluaren kalitatea hobetzea, bereziki, ikaslearen ikaskuntza-emaitzak.
- Unibertsitateen arteko tituluen eta/edo unibertsitate bereko zentro desberdinetan ematen diren tituluen kasuan, KBSaren ezarpenaren ondorioz gauzatu diren ekintzak hezkuntza-programan parte hartzen duten zentro guztietan koordinatuta ote dauden balioetsiko da.

#### Azterketaren oinarri den informazioa:

- Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren prozedurak eta erregistroak tituluaren honako alderdi hauekiko: Tituluaren helburuen eta biltzen dituen gaitasunen diseinua, berrikuspena eta hobekuntza, ikasleen erreklamazioen artatzea, ikasleei laguntza eta orientazioa emateko mekanismoak eta emaitzen eta adierazleen azterketa (kontuan hartutako aldia-titulua).
- Tituluaren jarraipen-txostenak.
- AUDIT. Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren ezarpenaren ziurtapen-txostenak (kontuan hartutako aldia-titulua).

#### BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:

#### BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

#### GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:

### 3.2. Gidalerroa

Implementatutako KBS-k tituluaren jarraipen, aldaketak eta egiaztapen prozesua errazten du eta bere etengabeko hobekuntza bermatzen du datu objektiboen analisiez gero.



#### **Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:**

- Tituluaren egiaztapenerako eta aldaketak egiteko ebaluazio-txostenetan eta jarraipen-txostenetan bildutako gomendioak KBSan aztertu dira eta tituluaren arduradunek dagozkion ekintzak ezarri dituzte.
- KBSk tituluaren inplikaturako kolektiboentzat erabilgarria den informazioa sortu du.
- KBStik emandako informazioa dela-eta, titulurako aurreikusitako diseinuan aldaketak sartu dira.

#### **Azterketaren oinarri den informazioa:**

- Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren prozedurak eta erregistroak tituluaren honako alderdi hauekiko: Tituluaren helburuen eta biltzen dituen gaitasunen diseinua, berrikuspena eta hobekuntza, ikasleen erreklamazioen artatzea, ikasleei laguntza eta orientazioa emateko mekanismoak eta emaitzen eta adierazleen azterketa (kontuan hartutako aldia-titulua).
- Egiaztapen-, baimen- eta aldaketa-txostenak.
- Jarraipen-txostenak.
- AUDIT. Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren ezarpenaren ziurtapen-txostenak (kontuan hartutako aldia-titulua).
- Inkestatutako kolektiboen balioespina.

#### **BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

#### **BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:**

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

#### **GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**

### 3.3. Gidalerroa

Implementatutako KBS-k ebaluazioa errazten eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea hobetzen dituzten prozedurak ditu.

#### **i** Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:

- KBSk, gutxienez, honako alderdi hauen informazioa jasotzeko, azterketa egiteko eta hobekuntzak egiteko prozedurak ezarri behar ditu:
  - Ikasleek tituluarekiko dute gogobetetze-mailaren azterketa.
  - Irakasleek tituluarekiko dute gogobetetze-mailaren azterketa.
  - Ikasketa-plan batean zehaztutako helburu eta gaitasunekiko ikasleek garatzen duten ikaskuntza-prozesuan laguntzeko gelan zein gelatik kanpo egiten den jarduera multzoaren ebaluazioa eta azterketa (plangintza, tituluko irakaskuntza-garapena eta ikaskuntzaren ebaluazioa).
  - Irakaskuntzaren kalitatea bermatzea.
  - Tituluko irakaskuntzen arteko irakaskuntza-koordinazioaren ebaluazioa.
  - Ikasketa-planak berrikustea eta hobetzea.
  - Hartutako erabakiak ebaluazioaren eta haren jarraipenaren ondoriozkoak izatea.
  - Titulazioaren irakaskuntza-kalitatearen emaitzak webguneko erraz ikusteko leku batean argitaratzea, horrela hedatzeko.
  - Irakasleek irakaskuntzan egin beharreko hobekuntzak.

Zehatzago esanda, aipatutako alderdi bakoitzean honako hauek hartuko dira kontuan:

- Gauzatutako ekintzak eta ekintza horien dokumentu bidezko ebidentziak.
- Lortutako emaitzak aztertzea.
- Aztertutako informazioa tituluaren berrikuspenarekin eta hobekuntzarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko erabiltzea.

#### **Azterketaren oinarri den informazioa::**

- Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren prozedurak eta erregistroak tituluaren honako alderdi hauekiko: Tituluaren helburuen eta biltzen dituen gaitasunen diseinua, berrikuspena eta hobekuntza, ikasleen erreklamazioen artatzea, ikasleei laguntza eta orientazioa emateko mekanismoak eta emaitzen eta adierazleen azterketa (kontuan hartutako aldia-titulua).
- AUDIT. Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren ezarpenaren ziurtapen-txostenak (kontuan hartutako aldia-titulua).
- Langile akademikoen ebaluazio-prozesuak DOCENTIA programa edo antzekoak (kontuan hartutako aldia-zentroa).
- Jarraipen-txostenak.
- Inkestatutako kolektiboaren balioespena.

#### **BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:**

#### **BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:**

Bikaintasunez lortzen da  Lortzen da  Zati batean lortzen da  Ez da lortzen  Ez dagokio

#### **GIDALERROEN BETETZEA ZIURTATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK:**

## 2.ALDERDIA.- ERREKURTSOAK

### 4. IRIZPIDEA. LANGILE AKADEMIKOAK

#### Estandarra:

Irakasten duten langile akademikoak nahikoak eta egokiak dira, hain zuzen ere, tituluaren ezaugarriei eta ikasle kopuruari dagozkienak.

#### 4.1 Gidalerroa.

Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza- eta ikerketa-kalitate egokia ere.



#### Gidalerro hau betetzeko balioetsi beharreko alderdiak:

- Langile akademikoen lanbide-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-esperientzia titulurako definitutako maila akademikoarekin, izaerarekin eta gaitasunekin bat dator.
- Kanpo-praktiketara esleitutako langile akademikoen (tutore akademikoak) profila.
- Gradu- eta master-amaierako lanetara esleitutako langile akademikoen profila.
- Hala dagokionean, langile akademikoek irakaskuntza erdi-presentzian edo urruneko irakaskuntzan esperientzia izatea.
- Kontuan hartutako aldi langile akademikoek dagokien egituraren egindako aldaketa

#### Azterketaren oinarri den informazioa:

- 1go taula. Tituluaren datuak eta adierazleak (adierazleen bilduma eta datuen jarraipena)
- Langile akademikoen egitura mailaka, hala balegokio, egiaztatutako langileen portzentaia adieraziz.
- Langile laguntzaileen egitura eta azalpena.
- Irakaskuntza esperientzia (bosturtekoak), ikerkuntza (seiurtekoak) eta lan esperientzia.
- Tituluaren irakasgaien parte-hartzen duten irakasle bakoitzaren Curriculum labur bat (kontuan hartutako epealdiaren azken ikasturte osoa-irakasgaia)
- Langile akademikoen ebaluazio prozesuen emaitzak. DOCENTIA programa edo bestelakoak ( aintzat hartutako epealdia- zentroa)
- Inkesta egin duten kolektiboen balorazioa

#### BALIOESPEN DESKRIBATZAILEA:

#### BALIOESPEN SEMIKUANTITATIBOA:

